

## Burgosen menpe egoteak bizimoduan dakartzan arazoak



# Arabako bihotzean, lurralde ahantzia

Auto gidariei Gaztela eta Leongo komunitatean sartzea doazela adieratzen dien bide seinalea, Trebiñoko konderriko sarreran. • RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Iragan martxoaren 8an lau urte bete ziren herri kontsulta baten bidez trebiñoko herritar gehienek Araban sartzeko nahia adierazi zutenetik; egun ere gehientsuenek iritzi bera dute, «zentzu praktiko» batek eraginda batez ere

### GORKA EROSTARBE

Arabako bihotzean kokatua dagoen arren, Trebiñoko Konderria betidanik euskal eremurik ezezagunenetakoa izan da, lurralde ahaztua, bai administratiboki bere jabe diren Burgos eta Gaztelarengandik eta baita gainontzeko euskaldunongandik ere. Administrazio bati Burgosko (eta beraz, Gaztela-Leongo) probintziaren zatia baita izan Trebiño, eta horrenbestez, bertako bizilagunek mende askotan eskizofrenia administratibo-politikoak pairatu behar izan dute: Araba erdian bizi (Gasteiztik 20 kilometrora) baina ezin arabar gisa bizi. Istorioa XII. mendean hasi zen Trebiñoko ingurunea jaurerri bihurtu zenean; 1288an Gaztelaren menpe geratu ostean Joan II.ak konderri titulua eman zion, eta, XVe-an, berriz, Arabatik bereizi zen. Azkenik, Espainiako probintzien banaketa egin zenean (1832), Burgosen menpean utzi zuten, herritarrek nahi zutenaren aurka. Hortik aurrera, Araban sartzeko ahaleginak bata bestearen atzetik etorri dira, batez ere XX. mendean (1940an Udalek eskatuz, 1958an Elizak eta kontzeju ia guztiek, 1980an si-


**Trebiñoko kale nagusian isiltasun eta baretasun erabatekoa sumazitekeen, eta halatsu izan zen herriko bi tabernatan topatu genituen lagun bakanen jarrera ere**

nadura-bilketa batek). Azken saialdia 1998ko martxoaren 8an egin zen, erreferendum edota herri galdeketa-aren bitartez. Orain artean, ez zaio jaramonik egin trebiñarren gehiengoaren guriari.

Azken kontsulta hori egin zenetik 4 urte bete diren honetan trebiñarren asmo, pentsaera eta bizimoduak zertan diren jakin nahian konderrira jo

genuen iragan asteazkenean bertako bizilagunen iritziak gertutik jasotzeko asmoz.

Bi udalerritan banatzen da Trebiño-konderria (Argantzun eta Trebiño) eta horietako bat izan zen gure lehen jomuga: Trebiño bera. Gasteiztik eguraldi haizetsuarekin abiatu eta Trebiñora heltzerako laino ilunak eta euri zizpritzinak agertu zitzaizkigun, agian herri hartan aurkituko genuenaren adierazgarri. Herriko kale nagusian isiltasun eta baretasun erabatekoa sumazitekeen, eta halatsu izan zen herriko bi tabernatan topatu genituen lagun bakanen jarrera ere. «Gai honen inguruan nahiago nuke ezertxo ere ez adieraztea. Aurrez ere beste hedabide ugari etorri dira, eta sekulan ez diet ezertxo ere esan», azaldu zigun edukazio handiz udaletxe ondoko tabernaren jabeak. Zenbait metro gorago dagoen tabernan hainbat langile topatu genituen bazkalosteko kafea hartzen. Haietako batek hartu zuen guztien ahotsa: «Jada nazkatu antzean gara gai honekin. Askotan eman izan dugu gure iritzia, eta gero komunikabide-



Trebiñoko udaletxe barruko eskulturak trebiñarrek historian zenbait aldiz Araban sartzea eskatu dutela azaltzen du. • RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

hurrengo orrialdean jarraitzen du